



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko maiatzaren 3a

60. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Foru Legea, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legea aldatzekoa. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Nafarroako Kontseiluari buruzko Foru Lege proposamena. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (9. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bultza dezan eskola-eredu publiko anitza, inklusiboa eta ez-segregatzailea, baterako hezkuntzako, bere hurbileneko ingurune sozialean inkardinatua eta bere egitekoa kalitatez egiteko behar dituen baliabide guztiez hornitua. Osoko Bilkurak onetsia (10. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroaren garapen ekonomikoari eta sozialari begira ekintzailetzak daukan garrantzia aitor dezan. Osoko Bilkurak onetsia (10. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bakearen eta indarkeriarik gabeko gatazkakudeaketaren kultura bat susta dezan, delitugintzari aurrea hartzeko. Osoko Bilkurak onetsia (11. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak apustu egiten du ekitatearen alde eta Nafarroako herritar guztiek osasun-sistema publikorako sarbidea izatearen alde. Osoko Bilkurak onetsia (12. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxeak taxutu ditzan halako moduan non ikasketak hizkuntza eredu ezberdinetan egiten dituzten ikasleek hezkuntza-esperientziak konpartituko baitituzte eta elkarrekin egonen baitira. Osoko Bilkurak onetsia (13. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da LGTBI pertsonen tratu-berdintasunerako eta bazterkeriarik ezerako arlo berariazko bat sor dezan. Osoko Bilkurak onetsia (13. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plan bat taxutu eta aurkez dezan, hormone-tarako kutsagarriei dagokienez biztanleriaren eta ingurumenaren eraginpetasuna murrizteko. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Batzordeak onetsia (14. or.).

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sakanako denda txikien lan-mahai bat era dezan, txikizkako merkataritza sustatzeko plan bat taxutu dezan eta turismoa indartzeko kanpainak bultzatzen. Garapen Ekonomikorako Batzordeak onetsia (15. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Iruñeko Udala premiatzen dira Andre Maria Erregina auzoko txabola-kokalekuaren egoera konpontzera bideratutako neurriak har ditzaten. Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztu du (16. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Legea, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legea aldatzekoa.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko apirilaren 21ean egindako Osoko Bilkuran, honako foru lege hau onetsi zuen: "Foru Legea, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legea aldatzekoa".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2016ko apirilaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **Foru Legea, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legea aldatzekoa**

#### ZIOEN AZALPENA

##### I

Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legeak 5.1 artikuluan ezartzen duenez, herritar orok eskubidea dute Administrazio Publikoaren esku dagoen informazio publikoa eskuratzeko. 11/2012 Foru Legearen III. tituluak garatzen du eskubide hori, bai eta hartaz baliatzeko prozedura ere.

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea da gai honi buruzko oinarritzko legea, eta esparru zabala ematen dio informazio publikoa eskuratzeko eskubideari, pertsona guztiak haren titular eginez; eskubide hori erabiltzen ahalko da eskabidearen arrazoiak eman beharrik gabe. Informazio publikoa eskuratzeko eskubideaz baliatzea errazagoa izan dadin, legeak prozedura bizkor bat ezartzen du, erantzute-epelaburrarekin. Horrekin batera, aurkaratzearen arloan aukerako erreklamazioa sortzen du, bide judicialaren aurretikoa, errekurtsio administratiboan ordezkoa; erreklamazio hori Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluak (GGOK) ebatziko

du, zeina berritik sorturiko erakunde independentea baita. Eskumen autonomikoak ahalik eta gehien errespetatzeko, zioen azalpenean aipatzen den bezala, berariaz aurreikusten da GGOKek eskumena izanen duela horretarako hitzarmena izenpetu den autonomia erkidegoetan soilik; eta, gainerakoetan, kontseiluak estatu mailan bere gain hartzen dituen eskumenak betetzeko izendatutako organo autonomikoaren esku geldituko da gaia.

Horrela, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 20.5 artikuluan xedatzen da informazio publikoa eskuratzearen arloan emandako ebazpenen kontrako errekurtsioak zuzenean aurkezten ahal direla administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, horrek galarazi gabe Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluari aukerako erreklamazioa aurkeztea, 24. artikuluan aurreikusitakoa.

Lege horren 24. artikuluko 6. idatz-zatiak xedatzen duenez, erreklamazio horiek ebazteko eskumena Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluak du, salbu eta autonomia erkidegoek eskumen hori berariazko organo independente bati esleitzen badiote, legearen laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraikiz.

Eginkizun hori berariazko organo autonomiko independente bati esleitzen zaio, Nafarroako herritarrei bermerik handiena ematen dien bidea delako. Bazterturik gelditu da, beraz, Estatuko Administrazio Orokorrarekin hitzarmena izenpetzeko aukera, Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluari eginkizunak esleitzeko, abenduaren 9ko 19/2013 Legearen laugarren xedapen gehigarriko 2. atalak ahalbidetzen duena. Izan ere, horrek ekarriko luke organo jurisdikzional zentralen esku uztea gatazkak ebazteko eskumena, eta hori gehiegizko zama litzateke eskubide horretaz baliatu nahi duten herritarrentzat.

Bestetik, legealdi aldaketa izan denez, agerian geratu da zehaztasun falta dagoela Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Foru Legearen 63. eta 64. artikuluetan arautu eta ezarri zen beharkizunean –ordainsariak, jarduerak, ondasunak eta kargu-uzte ondoko ordainsariak publiko egitekoan–, beharkizun horrek irau behar duen epeari dagokionez, zeina, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Foru Legeak ezarritako publizitatearen funtsezko elementu izaki, legearen nahitaezko eduki izan beharko bailitzateke.

## II

Foru legeak artikulua bakarra eta bi azken xedapen ditu.

Artikulu bakarrak Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legea aldatzen du. Aldaketak III. tituluaren eragina gehienbat, baina baita I. tituluaren ere, 5.3 a) artikuluan aitortzen baita edozein herritarrek eskubidea duela foru lege honek gehitzen duen 33.bis artikulua berriak aipatzen dituen erreklamazioak aurkezteko, eta 5.3 b) artikuluan jasotzen den 69. artikulurako igorpena zuzentzen da.

31. artikuluko 1. eta 4. idatz-zatiak informazio publikoa eskuratzearen arloan emandako ebazpenak aurkaratzeko sistema berriaren ondoriozkoak dira.

III. tituluak III. kapitulu berria gehitzen du, aurkaratzeko sistema aldatu eta aukerako erreklamazio bat sortzen duena, bide judizialaren aurretikoa, errekurtsio administratiboaren ordezkia, Administrazio Publikoaren administrazio prozedura erkideari buruzko legerian xedatutakoari jarraikiz. Erreklamazio hori organo independente berri batek ebartziko du, Nafarroako Gardentasunaren Kontseilu izenekoak.

Aldatu egiten dira Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Foru Legeko 63. eta 64. artikulua, “Etika eta gardentasuna Gobernuaren ekintzan” izeneko VII. Titulukoak, zehaztuz zenbateko irau-naldia izan behar duen ordainsariei, jarduerari, ondasunei eta kargu-uztearen ondoko ordainsariei buruz artikulua horietan arautzen den publizitateak.

“Berme administratiboak, judizialak eta judizioz kanpokoak” izeneko VIII. tituluaren aldaketa egiten da, III. tituluaren III. kapitulu horretan ezarritako aurkaratze araubide berriekin bat etortzeko; halatan, 67. artikulua zehazten du zein diren, administrazio prozedura erkideari buruzko oinarriko araudian eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko Foru Legearen erregulatutako errekurtsio administratiboetatik –halaber aintzat harturik, kasua bada, administrazioarekiko

auzien jurisdikzioa arautzen duen legean aurreikusitako administrazioarekiko auzi-errekurtsioa ere–, bidezkoak direnak Administrazio Publikoari egoztekoak diren egiteen edo ez-egiteen kontra, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Foru Legeak parte-hartze eta lankidetzaren publikoaren arloan aitortzen dituen eskubideak urratzen dituztenean. 68. artikulua berriaz jasotzen du bere bi idatz-zatietan Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluari aurkezteko ahal zaion erreklamazioa. 69. artikulua arautzen du sozietate eta fundazio publikoaren eta beste entitate batzuen jarduketaren kontra Administrazio Publikoari aurkezteko erreklamazioa, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Foru Legeak parte-hartze eta lankidetzaren arloan aitortzen dituen eskubideak urratzen dituzten haien egite edo ez-egiteak direla eta. 70. artikulua gehitzen da, informazio publikoa eskuratzearen arloan aukerako erreklamazioaren sistema eransteko, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrekoa.

IX. tituluak Nafarroako Gardentasunaren Kontseilua sortu eta arautzen du, organo independente bezala, publizitate aktiboaren arloko beharkizunak betetzen direla zaindu eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea bermatuko duena.

Azken xedapenetako lehenean, azkenik, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen aldaketa jasotzen da.

**Artikulu bakarra.** Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legearen aldaketa.

Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legea honela aldatzen da:

Bat. 5. artikuluko 3. idatz-zatiko a) letra honela idatzita geldituko da:

“a) Foru lege honek parte-hartze eta lankidetzaren publikoaren arloan aitortzen dizkien eskubideak urratzen dituzten egite eta ez-egiteen kontrako errekurtsioak aurkeztea bide administratiboan, eta 33.bis artikulua informazioaren arloan aipatzen dituen erreklamazioak jartzea”

Bi. 5. artikuluko 3. idatz-zatiko b) letra honela idatzita geldituko da:

“b) 68. artikulua aipatutako kexa jartzea beren eskubideak babesteko, manu horretan aurreikusitako moduan”

Hiru. 26. artikuluko 1. idatz-zatiak testu hau izanen du:

“1. Informazio publikoa eskuratzeko eskaerak kasuko informazioa duen unitate organikoari edo entitateari egin beharko zaizkio, eta hark haien berri eman beharko dio Gobernu Irekiaren arloko eskumena duen unitate administratiboari, eta artikuluko honetan xedatutakoaren arabera tramitatuko dira. Administrazio Publikoaren eremuan, informazio eskaerak ebazteko eskumena kasuan kasuko informazioa duten unitateetako hierarkia-buruek izanen dute, baldin eta, betiere, esleituak badituzte ebazte-eskumenak, egitura organikoak arautzen dituzten arau ezberdinekin bat”

Lau. Honela idatzita egonen da 31. artikulua 1. idatz-zatiaren bigarren paragrafoa:

“Ebazpenak baimena ematen badu informazioa ematearen aurka azaldu den hirugarren bat ukitzen duen informazio bat osorik edo partez eskuratzeko, informazioa eskuratzeko ahalko da, bakar-bakarrik, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko epea halakorik formalizatu gabe bukatu ondoren, edo informazioa jasotzeko eskubidea berretsiz ebatzi ondoren. Informazioa eskuratzeko eskubidearen baldintza etengarri hori berariaz adieraziko da ebazpenean.”

Bost. 31. artikulua 4. idatz-zatiak testu hau izanen du:

“4. Informazio publikoa eskuratzeko erloan emandako ebazpenek bide administratiboa amaitzen dute, eta zuzenean jar daiteke haien kontrako errekurtsoa administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, ezertan galarazi gabe 33.bis artikuluan aurreikusitako aukerako erreklamazioa jartzea.”

Sei. III. tituluari III. kapitulu berri bat gehitzen zaio, testu honekin:

### “III. KAPITULUA

Informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen bermeak

33. bis artikulua. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluari erreklamazioa aurkeztea.

1. Informazio publikoa eskuratzeko erloan emandako ebazpen espresuen nahiz presuntziozkoen kontra erreklamazioa aurkezten ahalko zaio, aukerakoa, Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluari, administrazioarekiko auzien bidean aurkaratu aurretik.

2. Kapitulu honetan aurreikusitako erreklamazioa errekurtso administratiboan ordezkotzat joko da, Administrazio Publikoaren Administrazio Proze-

dura Erkideari buruzko legerian xedatutakoarekin bat.

3. Erreklamazioa hilabeteko epean aurkeztu beharko da aurkaratutako egintza jakinarazi eta biharamunetik hasita, edo isiltasun administratiboa efektuak izan eta biharamunetik hasita.

4. Erreklamazioa tramitatzean, indarreko legeriak errekurtsoei buruz xedatutakoari jarraikiko zaio. Informazioa eskuratzeko ukoa hirugarrenen eskubide edo interesen babesean oinarritzen denean, erreklamazioa ebatzi aurretik entzute-tramitea emanen zaie ukituak gerta litezkeen pertsonari, haien eskubideen alde komeni dena alega dezaten.

5. Ebazpena eman eta jakinarazteko gehiengo epea hiru hilabetekoa izanen da; epe hori iraganik, erreklamazioa ezetsi egin dela ulertuko da.

6. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluak emandako ebazpenak, barnean eduki litzaketen datu pertsonalak kendu ondoren, bitarteko elektronikoen bidez argitaratuko dira, erregelamenduz ezartzen den moduan eta haien jakinarazpena interesdunei eman ondoren.

7. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluak emandako egintzak administrazioarekiko auzien bidean aurkaratzen ahal dira.”

Zazpi. 63. artikulua 3. idatz-zati bat gehitzen zaio, testu honekin:

“3. Ordainsariak, jarduerak eta ondasunak direla-eta artikuluko honetan aipatzen den publizitateak iraunen du harik eta kargu publikodunaren agintaldia amaitzen edo haren kargu-uztea gertatzen denetik bi urte iragan arte.”

Zortzi. 64. artikulua aldatu egiten da. Hauxe da testu berria:

“64. artikulua. Kargua utzi ondoko ordainsarien publizitatea.

1. Nafarroako Gobernuak kide ohiei edo Administrazio Publikoko goi kargudun ohiei ordaintzen zaizkien prestazio ekonomikoak, azaroaren 4ko 19/1996 Foru Lege horretan jasoak daudenak, publiko eginen dira, lege horretan ezartzen den moduan.

2. Prestazio ekonomikoen publizitateak, artikuluko honetan aipatzen denak, iraunen du harik eta kargu publikoaren agintaldia amaitzen edo kargu-uztea gertatzen denetik bi urte iragan arte.”

Bederatzi. VIII. titulua aldatu egiten da. Hauxe da testu berria:

### VIII. TITULUA

Berme administratiboak, judizialak  
eta judizioz kanpokoak

67. artikulua. Errekurtsoak.

1. Inork uste badu Administrazio Publikoari egozten ahal zaion egintza batek edo ez-egite batek urratu egin dituela foru lege honetan parte-hartze eta lankidetzaren publikoen arloan aitortzen zaizkion eskubideak, zilegi izanen du administrazio prozedura erkideari buruzko oinarritzeko araudian eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko Foru Legean araututako errekurtsoak jartzea, eta, kasua bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen legean aurreikusitakoa.

2. Jartzen diren gora jotzeko errekurtsoak lehendakaritza gaitako eskumena duen departamentuko kontseilari titularrak ebatziko ditu, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 57.2.f) artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

3. Parte-hartze eta lankidetzaren publikoen arloan jarritako errekurtso administratibo guztietan, aginduzkoa izanen da Gobernu Irekiaren arloko eskumena duen unitateak kasuko errekurtsoaren gaineko txostena egitea.

68. artikulua. Kexa Nafarroako Arartekoari.

1. Deusetan galarazi gabe Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluari aurkez dakioken erreklamazioa, foru lege honen III. tituluaren informazio publikoaren eskuratzeko aitortzen den eskubidearen baliatzea herritarrei osorik edo partez galarazi edo mugatzen dieten Administrazio Publikoko organoen ebazpen espresuen edo presuntziozkoen aurkakoa, informazio publikoaren eskuratzeko Nafarroako Arartekoari kexa bat bidaltzen ahalko dio, Nafarroako Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legean xedatutakoari jarraikiz, baldin eta informazio hori eskuratzeko daukan eskubidea galarazi edo mugatu bazaio.

2. Nafarroako Arartekoaren esku-hartzeak ez ditu etenen bidezkoa den erreklamazioa edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko epeak, Nafarroako Arartekoari buruzko Foru Legean ezarri bezala.

69. artikulua. Administrazio Publikoari erreklamazioak aurkeztea, sozietate eta fundazio publikoen eta beste entitate batzuen jarduketan aurka.

1. Herritar batek uste badu foru lege honen 2. artikuluan aipatutako sozietate publiko, fundazio publiko edo zuzenbide publikoko entitateen egite edo ez-egite batek urratu egin dizkiola foru lege honetan parte-hartze eta lankidetzaren publikoen arloan aitortzen zaizkion eskubideak, egitea edo ez-egitea erakunde horrek eginkizun publikoetan jardutearen edo haren zaintza administratiboaren pean dauden eginkizunetan jardutearen ondorio bada, zilegi izanen du zuzenean erreklamazio bat aurkezteko, Administrazio Publikoaren zein organo eskudunen agindutara jarduten duen, haren aurrean.

2. Organo eskudunak kasuko ebazpena eman eta jakinarazi beharko du. Ebazpen horrek bide administratiboa amaituko du, eta zuzenean exekutatzekoa izanen da, erreklamazioa haren erregistroan sartu eta hiru hilabeteko epean.

3. Ebazpena betetzen ez bada, Administrazio Publikoko organo eskudunak lehenengo idatzatian aipatzen diren entitateak errekerituko ditu, ofizioz edo eskatzailearen ekimenez, ebazpena bere terminoetan bete dezaten.

70. artikulua. Informazio publikoaren arloko erreklamazioak.

Norbaitek uste badu Administrazio Publikoari edo sozietate publikoei, fundazio publikoei edo beste entitate batzuei egozten ahal zaion egite edo ez-egite batek urratu egin duela informazio publikoa eskuratzeko daukan eskubidea, III. tituluaren III. kapituluaren araututako erreklamazioa aurkezten ahalko du eta, kasua bada, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen legean aurreikusitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa.”

Hamar. IX. titulua gehitzen da. Hau da testua:

### “IX. TITULUA

Nafarroako Gardentasunaren Kontseilua

71. artikulua. Nafarroako Gardentasunaren Kontseilua.

1. Nafarroako Gardentasunaren Kontseilua sortzen da, Nafarroako Foru Komunitateko gardentasun arloko kontrolerako organo independente gisa, publizitate aktiboko betebeharrak betetzen direla zaintzeko eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea bermatzeko.

2. Kontseiluak objektibotasunez eta profesionaltasunez jardunen du bere eskumenak betetzean, antolamendu juridikoari men eginez eta administrazio publikoengandiko erabateko independentzia funtzionalarekin.

3. Foru Administrazioarekiko lotura gardentasunaren arloko eskumena duen departamentuaren bitartez gauzatuko da.

72. artikulua. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluaren eginkizunak.

1. Hauek dira Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluaren eginkizunak:

a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta Nafarroako Foru Komunitateko sektore publikoko gainerako entitateek, baita bere lurraldean eta kasuko sektore publikoan sarturik dauden toki entitateek ere, informazio publikoa eskuratzearen arloan emandako berariazko edo presuntziozko ebazpenen kontra aurkezten diren erreklamazioez arduratzea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat.

b) Gardentasunaren arloan Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Foru Legea garatzen duten edo arlo horrekin loturik dauden arau proiektuei buruzko txostenak ematea, nahitaez.

c) Gardentasun-betebeharra duten entitate eta erakundeek arlo horretan dituzten beharkizunak noraino aplikatu eta betetzen dituzten ebaluatzea; beharkizun horiek hobeki betetzeko gomendioak ere egiten ahalko ditu.

d) Bere lanen bilakaeraren eta Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Foru Legean ezarritako xedapenen betetze mailaren gaineko oroitzakizki bat aurkeztea Nafarroako Parlamentuari.

e) Prestakuntza eta sentsibilizazio jarduerak sustatzea.

f) Antzeko izaera duten organoekin elkarlanean aritzea berezkoak dituen gaitan.

g) Lege edo erregelamendu mailako arauen bidez ardurapean ipintzen zaizkion gainerako eginkizunak.

2. Erregelamenduz ezarriko dira Kontseiluak artikulua honetan xedatutakoa garatzeko beharrezkoak diren antolaketa eta funtzionamendu arauak.

73. artikulua. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluaren osaera.

1. Nafarroako Gardentasunaren Kontseilua lehendakariak eta kide hauek osatuko dute:

a) Nafarroako Parlamentuko lau kide, Nafarroako Parlamentuan dauden taldeen arabera aniztasun irizpidea aintzat hartuta izendatutakoak.

b) Gardentasunaren arloko eskumena duen departamentuaren ordezkari bat.

c) Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren hiru ordezkari.

d) Nafarroako Kontseiluaren ordezkari bat.

e) Kontuen Ganberaren ordezkari bat.

f) Nafarroako Arartekoaren ordezkari bat.

g) Nafarroako Unibertsitate Publikoaren ordezkari bat.

Kasuan kasuko erakunde edo organoaren ardurapekoa izanen da dagokion kidea izendatzeko prozedura, eta horrek, gainera, ordezkari bat izendatzen ahalko du, titularra eri, kanpoan edo aldi baterako ezintasun egoeran dagoenerako.

2. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria Nafarroako Gobernuak izendatuko du foru dekretu bidez, lau urteko epe ez-luzagarri-rako, izen eta gaitasun profesional handiko pertsonen artean. Hautatzea Nafarroako Parlamentuak eginen du gehiengo osoz, Parlamentuko talde ezberdinek proposatutako hautagaien artean aukeratuta.

Haren kargu-uztea gertatuko da berak hala eskatuta, heriotzaren ondorioz edo epai bidez ezgaitua izan ondoren. Bai eta Nafarroako Parlamentuak gehiengo osoz hala eskatzen duenean ere, haren eginkizunen ez-betetze larriagatik, zereginak betetzeko izendatu ondoren sortutako ezgaitasunagatik, bateraezintasunagatik edo dolozko delitua dela-eta zigorra jasotzeagatik.

Ildatz-zati honetan aipatzen den agintaldia ahituta, une horretan karguan ari denak eginkizunetan jarraituko du izendapen berria egiten den arte.

3. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko kideak lau urterako izendatuko ditu Nafarroako Gobernuak, gardentasunaren arloko eskumena duen departamentuko titularrak proposatuta, kasuan kasuko entitateek edo erakundeek hautatu ondoren.

Haien kargu-uztea gertatuko da beraiek hala eskatuta, heriotzaren ondorioz edo epai bidez ezgaituak izan ondoren. Bai eta proposatu dituen entitateak edo erakundeak hala eskatzen duenean ere, haien eginkizunen ez-betetze larriagatik, zereginak betetzeko izendatu ondoren sortutako ezgaitasunagatik, bateraezintasunagatik edo dolozko delitua dela-eta zigorra jasotzeagatik.

Agintaldia ahituta, une horretan karguan ari denak eginkizunetan jarraituko du izendapen berria egiten den arte.

4. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko kide izateak ez dakar erabateko dedikaziorik, ez eta inolako ordainsaririk jasotzeko eskubiderik ere.

Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria izatea bateraezina da Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Foru Legearen 61. artikuluan aipatzen diren karguetako edozeinekin, bai eta alderdi politiko bateko kide izatearekin ere, izendatu aurreko 4 urteak barne.”

**Azken xedapenetan lehena.** Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legea aldatzea.

Aipatu foru legearen 57. artikulua 2. idatzatiko f) letraren testua honakoa izanen da aurrerantzean:

“f) Lehendakaritza arloko eskumena duen departamentuko kontseilari titularra, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren kontseilarien mailatik beherako edozein organok edo haren menpeko erakunde publikoek parte-hartze eta lankidetzaren publikoen arloan emandako egintza guztiei dagokienez, baldin eta egintza horiek Gardentasuna eta Gobernu Irekia arautzen dituen Foru Legean araututa baldin badaude.”

**Azken xedapenetan bigarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.



---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Nafarroako Kontseiluari buruzko Foru Lege proposamena.**

*ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1. Nafarroako Kontseiluari buruzko Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea 2016ko maiatzaren 6ko eguerdiko hamabiak**

**arte** luzatzea. Aipatu foru lege proposamena 2016ko otsailaren 12ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.**

Iruñean, 2016ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bultza dezan eskola-eredu publiko anitza, inklusiboa eta ez-segregatzailea, baterako hezkuntzakoa, bere hurbileneko ingurune sozialean inkardinatua eta bere egitekoa kalitatez egiteko behar dituen baliabide guztiez hornitua.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko apirilaren 21ean egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bultza dezan eskola-eredu publiko anitza, inklusiboa eta ez-segregatzailea, baterako hezkuntzakoa, bere hurbileneko ingurune sozialean inkardinatua eta bere egitekoa kalitatez egiteko behar dituen baliabide guztiez hornitua."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bultza dezan eskola-eredu publiko anitza, inklusiboa eta ez-segregatzailea,

baterako hezkuntzakoa, bere hurbileneko ingurune sozialean inkardinatua eta bere egitekoa kalitatez egiteko behar dituen baliabide guztiez hornitua.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du irakaskuntza publikoaren garapena lehenets dezan eta, beraz, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoak babestu ditzan, guztiei hezkuntza sozializatzailea eta kalitatezkoa bermatze aldera.

3. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du LOMCE indargabetu dezan"

Iruñean, 2016ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroaren garapen ekonomikoari eta sozialari begira ekintzailtzak daukan garrantzia aitor dezan.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko apirilaren 21ean egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroaren garapen ekonomikoari eta sozialari begira ekintzailtzak daukan garrantzia aitor dezan."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako

Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroaren garapen ekonomikoari eta sozialari begira ekintzailtzak daukan garrantzia aitor dezan eta, enpresak sortu eta sendotzeko dauden oztopoak kentze aldera, lan egiteko konpromisoa har dezan beharrezkoa den oinarritzko alorretan, hala nola finantzaketaren

eskuratzean, ekintzaileak babestuz eta lagunduz euren bizi-zikloaren fase nagusietan eta euren proiektuen hazkundean, aprobetxatuta enpresetarako aro digitalean dauden aukera berriak, karga-beherapena eta araugintzako-eragozpenen murrizketa.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du Ekintzailetzarako eta

Gazte Enplegurako 2016-2019 Estrategia taxutu dezan.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du "autonomo faltsu" izeneko enpresa-gorakadaren aurka borrokatzeko plan bat taxutu dezan."

Iruñean, 2016ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuia premiatzen da bakearen eta indarkeriarik gabeko gatazka-kudeaketaren kultura bat susta dezan, delitugintzari aurrea hartzeko.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko apirilaren 21ean egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuia premiatzen da bakearen eta indarkeriarik gabeko gatazka-kudeaketaren kultura bat susta dezan, delitugintzari aurrea hartzeko."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du:

1. Bakearen eta indarkeriarik gabeko gatazka-kudeaketaren kultura bat susta dezan, delitugintzari aurrea hartzeko eskura dituen baliabide guztien bidez.

2. Bitartekaritza-zereginen eragiten duten arauak egin ditzan, eta halaber bitartekari-erregistro publiko bat ezar dezan, aipatu zereginen nork eta zer baldintzatan jardun dezakeen argituko duena.

3. Gaur egungo zigor arloko bitartekaritza gainerako jurisdikzioetara heda dezan, eta bereziki susta ditzan bitartekaritza zibila eta merkataritza, jurisdikzio guztiek pareko zerbitzu koherentea eman diezaieten herritarrei.

4. Arlo estrajudizialean, eskola-bitartekaritzako programak heda eta susta ditzan, eta udalerriekin bitartekaritza komunitarioko programa pilotuak koordina ditzan."

Iruñean, 2016ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak apustu egiten du ekitatearen alde eta Nafarroako herritar guztiek osasun-sistema publikorako sarbidea izatearen alde.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko apirilaren 21ean egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak apustu egiten du ekitatearen alde eta Nafarroako herritar guztiek osasun-sistema publikorako sarbidea izatearen alde"

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak apustu egiten du ekitatearen alde eta Nafarroako herritar guztiek osasun-sistema publikorako sarbidea izatearen alde. Hori dela-eta, uste du landa eremuek aintzatespen eta tratamendu berezia behar dutela, beren ezaugarri orografiko, geografiko eta populaziokoak direla-eta, bai eta profesionalak kontratazko eta fidelizatzeko zailtasunarengatik ere.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2/2013 Foru Legea bete dezan; izan ere, foru lege horrek aurreikusten du landa eremuetako beharrezanaren analisi bat eta osasun-laguntza jarraitu eta larrialdikoko zentroen funtzionamenduari eta antolamenduari buruzko plan bat egitea, eremu horietako profesionalen, toki entitateen eta gainerako kolektiboen egiazko parte-hartzea bermatuz, ahalik eta adostasunik handiena lortze aldera. Halatan, uste du egun ezarrita dagoen mikroguardia-sistemak ez dituela

landa eremuko arazoak konpontzen, eta sistema hori berehala berraztertzea premiatzen du, neurri egokiak har daitezten landa eremuan kalitatezko osasun-laguntza eta lan baldintza duinak bermatzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak balioetsi egiten du landa eremuak udalen legegintza ekimenaren bidez 2013an eta 2014an egindako lana, modu parte-hartzailean eta adostasun handiz egina, Nafarroa osoko 170 udalen babesarekin Parlamentuan aurkeztera heldu zena. Halatan, Nafarroako Gobernua premiatzen du eskualde bakoitzeko eragileekin lan egin dezan eta egiteke daukan planean ekimen horren edukiak jaso ditzan.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Lizarrako eta Tuterako eskualde mailako ospitaleen biziberritze eta antolatze efizienterako plan bat taxutu dezan, giza baliabideei eta baliabide materialei dagokienez, hurbiltasuneko eta kalitatezko ospitale-laguntza bermatzeko. Halatan, egiturazko neurriak proposatuko dira profesionalak fidelizatzeko eta itxarotzerrendak murrizteko, autoituntzera edo peonada izenekoetara jo behar izanik gabe, plantillen sendotze urgentearen aldeko hautua eginez eta ahalik eta lan-eskaintza publiko handienerako deialdia eginez, ahalik eta azkarren."

Iruñean, 2016ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxeak taxutu ditzan halako moduan non ikasketak hizkuntza eredu ezberdinetan egiten dituzten ikasleek hezkuntza-esperientziak konpartituko baitituzte eta elkarrekin egonen baitira.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko apirilaren 21ean egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxeak taxutu ditzan halako moduan non ikasketak hizkuntza eredu ezberdinetan egiten dituzten ikasleek hezkuntza-esperientziak konpartituko baitituzte eta elkarrekin egonen baitira”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egoki diren prozedurak taxutu ditzan, titulartasun publikoko ikastetxeetan elkarrekin bizi daitezen hizkuntza-eredu ezberdinak, eta orobat premiatzen du hezkuntza publikoaren eskaintza berrantola dezan bereizketa gertatu den ikastetxe guztietan, foru araudian ezarritako hizkuntza-eskaintzak jasota.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du titulartasun publikoko ikastetxe eraiki edo sortu berriek beren eremuari dagozkion hizkuntza-eredu guztiak eskaini ditzaten beren hezkuntza-eskaintzan.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du titulartasun publikoko ikastetxeetan neurriak ezar eta antola ditzan, ikastetxe berean edo espazio komunak eta instalazio bera duten ikastetxe ezberdinetan hizkuntza-eredu ezberdinetan ikasten duten ikasleek koordinatuta lan egin dezaten hezkuntza-komunitatearen arretan, Bizikidetasun eta Elkarlan Plan batean oinarrituta eguneroko bizitzako esperientziak partekatuz, dagozkion hezkuntza planetan jasoko direnak, eta horretara bideratutako egintza zehatzak kontuan hartuz”.

Iruñean, 2016ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da LGTBI pertsonen tratu-berdintasunerako eta bazterkeriarik ezerako arlo berariazko bat sor dezan.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko apirilaren 21ean egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da LGTBI pertsonen tratu-berdintasunerako eta bazterkeriarik ezerako arlo berariazko bat sor dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du LGTBI kolektiboari arreta emateko berariazko arlo bat sor dezan, besteak beste honako eginkizun hauek izanen dituena:

1. Jarduketak egitea LGTBI pertsonen bazterkeriarik paira ez dezaten, kolektibo horren erabateko parekatze legala eta soziala gerta dadin laguntzeko, eta bazterkeriazko edozein jarduketa, arautze eta jarrera ekiditeko.

2. Departamentuarterko plan bat prestatzea, bazterkeriarik ezerako.

3. Bazterkeriarik ezerako departamentuarterko planaren exekuzioa gainbegiratzea.

4. Harremanak ezartzea Nafarroako Gobernuko departamentuekin eta beste erakunde pribatu eta publiko batzuekin, planaren garapena bermatzeko.

5. Nafarroan LGTBI Kontseilu edo batzorde iraunkor baten sorrera bultzatzea, parte-hartze sektorialeko aholku-organo eta eztabaidarako plataforma egonkor gisa. Aipatu kontseiluak bilatuko du gay, lesbiana, gizon-emakume bisexual, transexual eta intersexualen eskubide berdintasuna, askatasunak eta errekonozimendu soziala sustatzea.

6. Hezkuntza, gizarte zein kultura arloko jarduketak, programak eta proiektuak garatzea, LGTBI-fobiaren aurka egiteko trabeskako moduan eta erakunde guztietan.

7. Lesbiana, gay, bisexual, transexual eta intersexualen eskubideak bermatzeko legea bultzatzea eta prestatzea, homofobia, bifobia eta transfobia desagerrarazteko.

8. Ikerketa bat bultzatzea, diagnostiko bat egin eta Nafarroako LGTBI errealitatea ezagutzeko, dituen beharrak identifikatzeko balioko duena.

9. Sexu-joerarekin eta genero-identitatearekin lotutako gaietarako Nafarroako Gobernuaren Informatzio eta Arreta Zerbitzuaren sorrera bultzatzea.”

Iruñean, 2016ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plan bat taxutu eta aurkez dezan, hormonetarako kutsagarriei dagokienez biztanleriaren eta ingurumenaren eraginpetasuna murrizteko.**

### *LANDA GARAPENENKO, INGURUMENENKO ETA TOKI ADMINISTRAZIOKO BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Batzordeak, 2016ko apirilaren 26an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plan bat taxutu eta aurkez dezan, hormonetarako kutsagarriei dagokienez biztanleriaren eta ingurumenaren eraginpetasuna murrizteko.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak erabaki du:

1. Nafarroako Gobernua premiatzea urtebeteko epean plan bat onetsi dezan, hormonetarako kutsagarriei dagokienez biztanleriaren eta ingurumenaren eraginpetasuna murrizteko. Plan horrek honako konpromiso hauek bilduko ditu:

a) Protokolo bat taxutu dezan, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin batera, eremu publikoetan pestizidarik ez erabiltzeko. Alternatiba gisa, lehenetsi egiten da substantzia kimiko toxikorik erabiltzen ez duten metodoak erabiltzea izurrien aurka borrokatzeko eta belar gaiztoak kontrolatzeko.

b) Fitosanitarioen aplikazioa arautzea nekazaritzan, deribaren bidezko kutsadurak saihestuta, dela haize gogorra dabilenean tratamendu fitosanitarioak aplikatzeagatik (haizeak airetik

baitaramatza substantzia kimikoak), dela nekazaritzako gailuak ureztatze-ubideetan, ibilguetan, putzuetan eta abarretan garbitzeagatik. Horretarako, beren-beregi debekatuko da haizea 20 km/h-tik gorako abiaduran dabilenean fitosanitarioak aplikatzea.

c) Elikagai garbi eta ekologiko gisa egiaztaturikoen kontsumoa sustatzea haurtzaindegi, eskola-jantoki, zahar-etxe eta ospitaleetan. Elikadura da substantzia toxikoen eraginpean jartzeko bide nagusietako bat. Elikaduraren bitartez hormonetarako kutsagarrien eraginpean jartzeko aukerak murrizteko, Nafarroako Gobernuak askotariko dieta sustatuko du eskola-jantoki, egoitza eta ospitaleetan, arrain eta okela koipetsuen kontsumoa murrizteko. Halaber, elikagai organikoen kontsumoa bultzatu, bisfenol-A, ftalatoak eta bestelako disruptore endokrinoak dituzten ontziak baztertu, eta eragotzi egiten du substantzia horiek aurkitzen diren ontzi eta tresna sintetikoetan (plastikoak, tefloi eta abar) elikagaiak berotu eta prestatzea. Nafarroako Gobernuak zuzenean ezarriko ditu neurri horiek bere ardurapeko jantoki eta egoitza guztietan, eta neurri horiek udal zentroetan eta pribatuetan aplikatzea sustatuko du.

2. Nafarroako Gobernuari eskatzea informazio eta prestakuntza-jardunaldiak antola ditzan, familiarrekin, gazteekin, umeeekin eta nerabeekin harremanetan dauden profesionaleri lehenespenez zuzendutakoak (hau da, familia-medikuak, pedia-

trak, emaginak eta erizainak). Halaber, behar diren materialak prestatuko ditu (gidaliburuak, liburuxkak eta abar) profesional horiei behar bezalako informazioa emate aldera hormoneterako kutsagarrien eraginpean egoteak osasunerako dakartzan arriskuei buruz, horrela gai izan daitezen substantzia toxikoen eraginpetasuna murrizteari buruzko gomendioak eskaintzeko, Europako beste herrialde batzuetan dagoeneko egiten den bezala. Era berean, maila guztietako hezitzaileei eta kazetariei eta komunikatzaileei berariaz zuzendutako jardunaldiak eta materialak prestatuko ditu, horiek informazioa eta prestakuntza izan behar baitituzte biztanleei egiazko informazioa, aurretik egiaztatu dena, eskaini ahal izateko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatuko dio kontratu eta erosketa publikoen bidez produktu garbien erabilera susta dezan, baita konpromisoa har dezan ere EBn indarrean dagoen disruptore endokrinoren zerrendan aipatzen diren substantzien erabilera pixkana-pixkana murrizteko eta substantzia horiek ez erabiltzeko klausulak gehitzeko, kontratu eta erosketa publiko-  
etako baldintza-pleguetan.

4. Nafarroako Gobernuari eskatzea airearen kalitateari buruzko plan berri bat onetsi dezan, Europako 200 hiri baino gehiagotan egiten ari diren bezala, motordun zirkulazioa murrizteko, ibilgailuek kutsatzen dutenaren arabera mugatzeko eta auto elektrikoa, garraio publikoa eta motorrik gabea (bereziki, bizikleta) indartu eta hobetzeko neurri eraginkorrak, derrigor bete beharrekoak, barne hartzen dituena.

5. Gainera, Nafarroako Gobernuak Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Ministerioa eta Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa premiatuko ditu hormoneterako kutsagarriek biztanleriarengan eta ingurumenean eragin apalagoa izateko politikak har ditzaten, baita substantzia horiek Europa mailan urgentziaz debekatzea defenda dezaten ere.

6. Halaber, Nafarroako Gobernuak, bere webgunearen bidez, plan horren betetze-mailaren berri emanen die urtero Nafarroako Parlamentuari eta biztanleriari”

Iruñean, 2016ko apirilaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premia- tzen da Sakanako denda txikien lan-mahai bat era dezan, txikizkako merkataritza susta- tzeko plan bat taxutu dezan eta turismoa indartzeko kanpainak bultzat- ditzan.**

### **GARAPEN EKONOMIKORAKO BATZORDEAK ONETSIA**

Nafarroako Parlamentuko Garapen Ekonomikorako Batzordeak, 2016ko apirilaren 26an egin-  
dako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Era-  
bakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak  
premiatzen da Sakanako denda txikien lan-mahai  
bat era dezan, txikizkako merkataritza sustatzeko  
plan bat taxutu dezan eta turismoa indartzeko  
kanpainak bultzatuz”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako  
Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin  
agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu-  
a premiatzen du:

– Sakanako denda txikien lan-mahai bat era  
dezan, merkatarien, erakundeen eta ukitutako era-  
gileen parte-hartzearekin.

– Sakanako txikizkako merkataritza sustatzeko  
plan bat taxutu dezan, hori bultzatzera bideratuta-  
ko politikekin.

– Kanpainak bultzatzea Sakanan turismoa  
indartzeko eta herritarrak denda txikien garran-  
tziak kontzientziazteko.

– Hori guztia egitea Sakana 2020 Plan Estrate-  
gikoan ezarritakoarekin koordinatuta, eta ibarreko  
udalekin, tokiko zein eskualdeko mailan dauden  
merkatarien elkarrekin, Sakanako Mankomunita-  
tearekin, “Garapen” garapen Agentziarekin eta  
Cederna Garalur-ekin lankidetzan. Hori guztia  
Merkataritzarako Plan Estrategikoaren ondorioe-  
kin eta baita Turismoarekin koordinatuta.”

Iruñean, 2016ko apirilaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Iruñeko Udala premia-tzen dira Andre Maria Erregina auzoko txabola-kokalekuaren egoera konpontzera bideratutako neurriak har ditzaten.**

### *ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua eta Iruñeko Udala premia-tzen baitira Andre Maria Erregina auzoko txabola-kokalekuaren egoera konpontzera bideratutako neurriak har ditzaten.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarte parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Andre Maria Erregina auzoko txabola-kokalekuaren egoera konpontzera bideratutako neurriei buruzkoa, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko:

Iragan apirilaren 26an lan-bilera bat egin zuen Eskubide Sozialetako Batzordeak, Andre Maria Erregina auzoko txabola-kokaleku ilegal dela eta sortutako problematika aztertzeko. Lan-bileran parte hartu zuten Iruñeko Tennis Klubaren kudeatzaileak eta Lezkairuko bizilagunen eta merkatarien ordezkari batek, auziari buruzko beren jarrera azaldu zutenak.

Azken asteotan behin eta berriro hitz egin da gai honi buruz; izan ere, Tennis Klubaren ordezkariak esan zuen legez, arazoa 2015eko ekainean hasi zen okertzen, "lehendabiziko txabola iraunkorrrak eraiki zirenean eta bizilagunen nahiz klubeko bazkideen kexak hasi zirenean, kokalekutik heldutako zaratak, usain txarra eta sute-arriskuak zirela-eta."

Jada denok dakigunez, jatorriz errumaniarrak diren ia hamar herritar bizi dira gaur egun txabola-kokalekuan, gure hirian bizitzeko beste edozeinek adinako eskubide berarekin. Halere, horien egoera negargarria eta gizapetikoa da, egiaztatu baita zeinen baldintza izugarrietan bizi diren (prekarietatea, osasungaitasuna, higienarik eza...), etxebizitza duin baterako eskubiderik oinarritzkoenaren aurka egiten dutenak.

Lezkairuko bizilagunen eta merkatarien ordezkariak adierazi zuen bezala, alde hartako bizilagunen segurtasuna larriki okertu da, zeren eta txabola-kokalekuan "suak pizten dituzte, lapurreta txikiak gertatzen dira auzoko saltoki txikietan eta haurrak eta zaharrak jazartzen dituzte beren etxeetako atarietaraino". "Lezkairuko bizilagunek eskatzen dutena da pertsona horiek birkokatuak izan daitezela eta bizimodu duina izateko aukera eskaini dakiela," baieztatu zuen.

Halaber, arazo hau sortu zenetik Tennis Klubak salaketak aurkeztu dizkie Udaltzaingoari, Iruñeko Udalari eta Foruzaingoari, egoeraren berri emanez. Esku hartzeko eskatu die, baina ez du emaitzarik lortu. Aldi honetan, gainera, zenbait joan-etorri, adostasun eta desadostasun gertatu dira Tennis Klubaren eta Iruñeko Udalaren artean, txabola-kokalekua dagoen lur-zatiaren jabekideak baitira, bai eta ukitutako eragile desberdinekin, nola baitira Andre Maria Erregina eta Lezkairu auzoetako bizilagunen eta merkatarien elkarteak, gatazkarako konponbide bat aurkitu nahian.

Berriki, Tennis Klubak txabola-kokalekua dagoen lur-zatiaren mantentze- eta garbiketa-lanak amaitu ditu, eta ageri-agerian utzi du, 309 tona zabor, obra-hondakin eta landaretza erretiratu ondoren. Aldi berean, Iruñeko Udalak erabaki du komun kimiko batzuk jartzea eta legez kanpoko txabola-kokalekurako sarbideak hobetzea. Gogoratu beharra dago kokaleku hori hiriaren erdigunean dagoela.

Inork ez du zalantzan jartzen ekimen horretan seguruenik edukitako borondate ona, baina nabarmendu beharra dago neurri horiek inolaz ere ez direla arazorako konponbide argi eta iraunkorra; aitzitik, lortzen dutena da arazoa iraunkor bihurtzea eta finkatzea, eta horrek, zalantzarik gabe, ez du aseko inplikaturako aldeetako bat ere.



Kokaleku horretan bizi diren pertsonen egoera ahulak eskatzen du bai Nafarroako Gobernuak bai Iruñeko Udalak, zeinek bere eskumenekin, jardun dezaten eta urgentziazko konponbide bat jar dezaten, gatazkari amaiera emateko.

Erabaki proposamena

Nafarroako Parlamentuak premiatzen du:

– Nafarroako Gobernua, Eskubide Sozietako Departamentuak neurriak har ditzan konponbide bat aurkitze aldera Andre Maria Erregina auzoko txabola-kokalekuan bizi diren herritarren higieneko, osasungarritasuneko eta segurtasuneko giza-

petiko baldintzetarako, haiek etxebizitza duin batean birkokatuz.

– Iruñeko Udala, ukitutako alde guztien mesederako izanzen den konponbide bat bila dezan (-txaboletan bizi diren pertsonak, Andre Maria Erregina eta Lezkairu auzoetako bizilagunak eta merkatariak eta Tenis Kluba), eta Eskubide Sozietako Departamentuarekin lankidetzan jardun dezan txabola-kokalekua kentzeko.

Iruñean, 2016ko apirilaren 28an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba





